

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Salistarrak



ARITZ GALARRAGA

Jaime Rodriguez Salis irundar –orain esango genuke– ekin-tzailea zendu berri da: Oiaso erromatar museoaren bul-tzatzailea, edota Remelluri upategiaren sortzailea, zenbat zorion momentu eskaini dizkidan –batez ere azken horrekin, oh, mama; eta asko esatea da hori, ni bezalako erromatarzale batentzat–. Amaren aldetiko aitona zuen Jose Salis, pintorea; ama bera, Dolores, eskultorea; eta aita Luis Rodriguez Gal, Luis de Uranzu, Bidasoako kronikagilea. Haur garaikoak argitaratu zituen 2009an, *El niño republicano de Beraun* izenekoan. Gazte-laniaz, noski, auzokide, ia kalekide zuen Carlos Blanco Aguina-gak bezala –“gure lagunaren artean zeuden Luis Salis, alkatearen semea, eta bere lehengusua, Jaime Rodriguez Salis, gaur egunean negoziogile garrantzitsu eta orduko hartan koadrilako mutiko-rik kokinena”–.

Dena den, esango nuke benetan merezi duena Dolores Salisen liburua dela, *Exilios (1936-1945)*, bizitzari baino –haren hitzetan “una vida vulgar y feliz”–, bizitzea egokitu zitzaion garaiari buruzkoa, 36ko Gerratik Bigarren Mundu Gerrara artekoa, zoriontsua auskalo, baina arruntetik batere ez duena. Laurogei urterekin hasi zen idazten, ikusmenak huts egin, lantzen zuen esmaltea utzi, eta hizki handiko Olivetti batean. Ia hil arte idatzi zuen, 1999an, ehun urte betetzeko hiru hilabete falta zituela: “Zahartzaroa gogaikarria da, baina ez dago zertan izutu. Azkar ibili beharra dut; ezen, nahitaez eskuratutako baretasun hone-kin, ematen baitu pasatakoa, urrutikoa, argitasun handiagoz ikusten dela”.

Jaime Rodriguez Salisek idatzi zuen haur garaian euskara oso erabilia zela Irunen. Dolores Salisek bazekien. Luis de Uranzuk haurtzarora pasata galdu zuen. Zer litzateke horiek guztiek euskaraz idatzi izan balute, horiek guztiak euskaraz idatziak izan balira? Jaimeren seme-alabek menperatzen omen dute. Inoiz memoria libururik idaztera animatuko balira, lurralde oso ia bir-jin bat leukakete aurretik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“EZ DUGU ESATEN POLIZIAK ZER EGIN BEHAR DUEN, ZER EGIN BEHAR EZ DUEN BAIZIK”

NAFARROAKO SOS ARRAZAKERIA

“Kontrol polizial arrazistak salatzeagatik hainbat sindikatu polizialek kargu hartu” dieten arren, egoera salatzen eta poliziak “zer egin behar ez duen” esaten jarraituko dutela adierazi dute SOS Arrazakeriako kideek. “Poliziaren ekintzak defendatu ordez, arrazakeriatik libre diren espazioetan bizi ahal izateak gehiago kezkatzen gaituen egunean hasiko gara gizarte justuagoa eraikitzen. Ordurarte, zelataria kontrolatzeko eta oinarritzko eskubideak defendatzeko dugun betebeharrarekin segituko dugu”. 2021/02/12

